# Iñaki Iturain Azpiroz

## Bizitzatik fikziora




Kostan Elkartea
Zarautz
2024.10.31


ORIOko
EUSKAL ALDIZKARIA
Karkara
1. zenbakia 100 pta. 1989ko ekaina

1989

2024


AIA-ORIO
GUKA
465.ZENBAKIA
ORIOKO HERRI ALDIZKARIA
2024KO URRIA
DENBORAREN
ZUBIA
IÑAKI ITURAIN
IRUDIMENA,
EZAGUTZARAKO ZUBI



1936ko gerraren ubera Orion
"Gerra bat barruan degula"
Iñaki Iturain Azpiroz




ORIOKO EUSKARA
Iñaki Iturain - Loren Loidi




ORIO
Historia argazkitan
Iñaki Iturain Azpiroz




Erriotik itsasora
Aginagako arraunlarien historia




ORIO
mende bat bertsotan
Xabier Sukia




Orioko patroiak
Herri txiki baten historia handia
Iñaki Iturain Azpiroz

Historia… istorioak



Kazetaritzatik… fikziora








KARKARA
ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA
ZER DAKAR BIZIBERRITZE PLANAK?


KARKARA
BANDERA DA


KARKARA
HATOR HATOR MUNDUTIK HERRIRA
+ GEHIGARRIA


ORIOko EUSKAL ALDIZKARIA
karkara


AIA-ORIO
GUKA
DENBORAREN
ZUBIA
IRUDIMENA, EZAGUTZARAKO ZUBI


ZUMAIA
GUKA
JANIRE GONZALEZ-ETXABARRI ETA KAULDI ODRIOZOLA
BI ZUMAIAR
KIROLAREN OLINPOAN
ASESORIA ARIN
ABOKATUA - EKONOMILARIA


Artzape
getariarron topagunea
SEXU HEZIKETA IRAULI BEHARRA
OLDARRALDI JURIDIKOAK HARRAPATUTA
nik ADMINISTRAZIOAN
euskaraz
IVAP


noaua
"ZAINTZA ETA ANIZTASUNA ERDIGUNERA
EKARRI DITUGU JAIETAN"
Juanjo Gomez: "Helduentzako erakunde propioa sortu nahi dugu"
Bestelako bizimodu baten aldarria egin zuten gazte txupinazoan
Santixabel jaietan ateratako argazki esanguratsuenak batu ditugu
Donosti Cup-eko partida batzuk Haranon eta Zubietan jokatuko dira


AIA-ORIO
GUKA
DENBORAREN
ZUBIA
IÑAKI ITURAIN
IRUDIMENA,
EZAGUTZARAKO ZUBI


Txaparro

# ORIOKO EUSKARA

Iñaki Iturain - Loren Loidi




DENBORAREN
ZUBIA
IÑAKI ITURAIN
narratiba




**Irratiaren katarroa**

**Bi gerra arteko uda**

**Oroimenaren paperak**

**Txakolina edo Bordeleko arnoa**

**Denboraren zubia**

**Estropada**

**Ordu txikitan**





“Baina nola zen posible nik
haietaz ezer ez jakitea?”









***"Bertako askok baina interes handiagoa daukazu hemengo gauzetan."***





Euskaldun berrien arazoa bakarrik ba-zen ere, orain gure haurrena ere bi-hurtzen ari da: kosta egiten zaie hi-kako adizkera nahiz hizjarioa menderatzea. Zukakoa menderatzen aritzen dira denboraldi luzeetan, libu-ruak eta klaseak zuka tajuturik dituz-te eta kalera irteten diren bezain las-ter «txakurrak kaka itsusia egin din», edo «ez zegok atsoa batere ondo», edo «egingo al dinagu?» bezalako perpausak entzuten dituztenean, libu-ruetako eta klaseetako eskemak lur jota geratzen zaizkie maiz. Ikasten du-tenetik kalean entzuten dutenera se-kulako tartea balego bezala. Eta egon, badago, zalantzarik gabe, amildegia ere baden tartea.

Txikitatik euskara dakigunontzat hika hitzegiteak, berriz, sekulako konota-penak ditu: adiskidetasuna, gertuta-suna, elkarren arteko adar jotzea, fa-miliartasun berezia... sarritan, mutilen artean zuka hitzegiten entzutea alemi-natuen arteko ihardunaren antzeko iruditzen zaigularik, nesken arteko zu-kako iharduna monja kolegioetatik pasatakoena...

Zalantzarik ez dago euskaldun berri batek bere eginahaletan borondate asko ipinia duela eta hizkuntza batek suposatzen dituen konotapen guztie-tara iristea zaila gertatzen zaiola.

Baina euskaldunon artean ere hika-ko joera galtzen ari da, gero eta ba-tek harreman gehiago, orduan eta baztertzenagotzen du hikako adizke-ra. Gainera, aldaketa haundiak dau-de hika mintzatzeko moduetan herri batetik bestera eta honek areagotu egiten du zailtasuna. Oroitzen naiz behin azpeitiar adiskide batek hola botatzen zion irrifarrez, beste adiski-de bergarar bati:

— Zuek due, zuek, hizkera xelebrea: neskei esaten ez diezue, ba, ekarriko jonat? —Eta *-ko jonat* hori indartzen zuen, barrezka lehertzeko zorian.

— Nola esaten duk hik? —hartu nuen parte, azpeitiarrak ematen zidan txis-terako aukerak posturik— Ez al duk hik ekarriko *ñat* esaten?

Kojonak batek, konat besteak, azpei-tiar mutilek bergarar neskekin prime-rako harreman sexualak bidera dezaz-ketela demostratzen digute.

Baina guk txikitan ikasi ere ikasi be-har izan genuen berorika ere mintza-tzen. Don Soterori, ohean urteak ze-ramatzan Etxeberriko amonari, nahiz oriotar askok gogoratuko duten don Pako medikuari berorika hitzegin be-har izaten genien:

— Berorrek aginduko digu noiz eto-rri dotrinara... Berorrek ez dit aspal-dian pagarik eman, amona... Bero-rrek esango du nahi duena, don Pako, baina ez zait oraindik behera-koa sendatu...

Txikitan —hamabi bat urte nituen or-duan, ordurako Zarautzen bizitzen jarria— apaizgai adiskide zarauztar bat bagenuen euskaraz oso ongi mintza-tzen ez zena: adizkerak nahiko naha-sirik zituen, eta apenas zekien bero-rika hitzegiten. Herriko erretorearen-gana —Oriokoa ere izan zen don Jose Maria Astigarrarengana— joaten ginen udaldietan, atzeratuta zituen zenbait lanetan laguntzera: bataio agi-riak eguneratu pipiak jotako liburu marduletan, norbaitek eskatutako ez-kontza agiriren bat aurkitu eta, bide batez, haren seme zaharrena penal-tiz munduratua izan zela jakin, eta ho-rrelako lanak izaten zituen gordeta don Jose Mariak, gure oporretako ordu libreetan pekaturako bideetara irristatzeko aukerarik izan ez genezan.

Behin, uste baino lan gehiago kora-pilatu zitzaion bikarioari —edo gu pe-katurako arrisku larrian geunden, nork jakin?— eta arratsaldean ere la-gunduko ote genion bota zigunean, pelota samarra zen gure adiskide apaizgaiak bere borondate hobere-nez, eta arratsaldean arroketara joa-teko genuen asmoa izorratuz, hala bota zion bikarioari, esaldia zarauz-tar jator eta peto bezala, «yau» xele-bre batez amaituz:

— Berorrek nahi baduzu, etorriko yau!

*anjel lertxundi*



Hil baino lehen idatzita utzi nahi ditut garai hartako gorabehera haiek denak.
(Mirenen hitzak)








